

# Funtsezko jarduerak

Gure proiektua funtzionatu dezan, lau gauza nagusietan oinarrituko gara gure zerbitzuak aurrera egiteko:

- Hasteko gure aplikazio kudeatu eta sortu behar dugu informatiko batzuen laguntzarekin.
- Gure aplikaziora datuak iristeko, beharrezkoa izango da sentsoreak erosi eta muntatu ditzakeen enpresa bat kontratatzea, adibidez, Bizkaiko **Biolan Health Sociedad Limitada**.
- Proiektua aurrera eramateko lokalak edo guneak behar ditugu sentsoarea ipintzeko. Horretaz gain, pertsonak ere behar ditugu aplikazioa erabiltzeko.
- Azkenik, publizitate kanpaina bat ere garrantzitsua izango da gure izena eta gure zerbitzua bai nazionalki, bai internazionalki zabaltzeko. Gainera horrela enpresak erakarriko ditugu gure aplikazioan publizitatea jartzeko eta horrela, dirua irabazteko.

## **Hau izango litzateke enpresaren prozedura:**

Lehendabiziko pausua sentsoarearen enpresa kontratatu eta bere sentsoare eta zerbitzuak erostea izango litzateke. Ondoren lokalei sentsoarea eraman eta instalatuko genieke eta azkenik, aplikazioaren funtzionamenduaz arduratuko ginateke, uneoro datu egokiak lortu eta ematen ditugula ziurtatzeko.

-Aitor bulegoetan egongo da, enpresak dituen fakturazioetaz, erosketetaz, salmentetaz, dokumentuetaz, kontratueta...arduratzen. Aimar ordea, enpresak duen irudiaz arduratzeaz gain, bezero berriak lortzen saiatuko da.

-Unax eta Xabat aplikazioak jendeari sortzen dizkion arazoetaz arduratuko dira, horretarako kontaktuan egongo dira aplikazioarekin eta web orriarekin. Eguneko ordu asko (08:00tatik 22:00tara).

-Gure enpresak informatikoekin eta kontratatutako sentsoreen enpresa batekin egingo du lan. Informatikoak, lehendabizi aplikazioa sortu eta guk eskatzen ditugun baldintzak ipintzen egongo dira.

Sentsorearen enpresa, berriz, guk behardugun sentsorea sortzeaz gain, eskatzen diegun tokira eraman eta instalatzen jardungo dute. Gainera, sentsoreetan akatsak baldin badaude, beraiek arduratuko dira dena konpontzeaz.

